

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i> etapa: <i>etapa:</i> arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i> osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/áreas</i> Diziplina barruko kompetentzia <i>Competencia disciplinar</i> irakasleak: <i>profesorado:</i>	Uribe kosta Batxillergoa Marrazketa teknikoa II Euskera, IKT eta Gizarte-Zientziak "Teknologiarako gaitasuna: Problema praktikoak ebaztea, eta eguneroko bizitzako zenbait esparrutan gizakiok izan ohi ditugun premiak eta irrikak asetzea, teknika eta ezaguera teknologikoak modu egoki eta arduratsuan erabiliz." (Heziberri 2020, 71.orr). Matxalen Santos	kodea: <i>código:</i> zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i> ikasturtea: <i>curso:</i>	015143 2 2018-19
---	--	--	------------------------

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales*:

1. Komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia digitala: [komunikatzen jakitea](#).
2. Ikasten ikasteko kompetentzia: [pentsatzen eta ikasten jakitea](#).
3. Norberaren ekimenerako kompetentzia: [ekimenez jokatzeko jakitea](#).
4. Gizarterako kompetentzia: [elkarrekin bizitzea jakitea](#).
5. Norberaren autonomiarako kompetentzia: [Norbera izaten jakitea](#).

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Adierazpen-sistemak aintzat hartu eta erabiltzea eta problema bera sistema desberdinez ebaztean lortutako emaitzak alderatzea, espazioan problema geometrikoak ebartziz eta planoan hiru dimentsioko formak irudikatuz, kasuan-kasuan sistema egoki eta adierazgarriena aukeratuz, azterketa-ahalmena, hausnarketa kritikoa,	1. Sistema diedriko eta isometrikoak eskaintzen dituen baliabideak aplikatzen ditu. 2. Gorputzak edo proiektzio planoak modu egokian erabiltzen ditu. 3. Espazioan dagoen objektu bat, bere posizioa eta neurri-erlazioak, modu teknikoan definitzen ditu. 4. Formen perspektiba isometrikoak eta diedrikoak interpretatzen eta bere kabuz irudikatzen ditu. 5. Naturako, arteko ... formak aztertzen

<p>komunikazioa eta pentsamendu dibergentea garatzeko.</p> <ol style="list-style-type: none"> 2. Krokisa, bozetoa eta apuntea zer diren jakitea eta zein garrantzitsuak diren jabetzea, ezinbesteko elementuak baitira diseinu-prozesuan eta konponbideen bilaketan, adierazpenak abileziaz eta azkar eginez, adierazpen grafiko egokia lortzeko. 3. Marrazketako eta diseinuko teknologia eta programekiko interesa izatea, baliabide tradizionalen osagarri moduan dituzten aukerak aintzat hartuz, lana antolatzeko eta errealitatea irudikatzen beste aukera batzuk ematen baitituzte, konponbide grafiko eta geometrikoak azkarrago eta arinago ematen dituzte eta. 4. Banaka eta taldean, edozein eraikuntza geometrikoren plangintza egitea eta hura egiteko prozesuaz hausnartzea, taldeko lana erantzukizunez, tolerantziaz eta besteen iritziak errespetatuz, ulertzeko zein garrantzitsua den beste pertsona batzuekiko harremana, dela lortu nahi dena konpartitzeko, dela faseak berrikusteko zein emaitzen ebaluazioa egiteko. 	<p>ditu, haietan agertzen diren elementu geometrikoei erreparatuz.</p> <ol style="list-style-type: none"> 6. Zuzenen, planoen eta solidoen arteko ebakidurak ebazten ditu perspektiba diedriko eta axonometrikoetan. 7. Objektuen erabateko definizio grafikoa lortzen du. 8. Objektu baten adierazpenetik benetako erreprodukzioa egiten du. 9. Lanak txukun, garbi eta planteatutako helburuari erantzunez ebazten ditu. 10. Marrazki mota eta helburua modu arretatsuan kontuan hartzen ditu, prozedura grafikoak aplikatzean 11. Proiektu bat koherentziaz garatzen eta zuzentzen du, hasierako ideiatik amaierara arte. 12. Talde-laneko prozesua ebaluatzen du eta aldaketak egiten ditu, emaitza hobea lortzeko. 13. Bitarteko tradizionalen eta ordenagailu bidezkoen prozesuak eta emaitzak alderatzen ditu. 14. Proiektu jakin batean tresna eta baliabide batzuk erabiltzea arrazoituz argudiatzen du. Ekoizpenaren araberrako lan-prozedura erabiltzen du 15. Bozetoa erabiltzen du lehen ebazpen-saiakerak definitzeko. Esku hutsez egindako marrazkien garrantzia bereizten du, bistaratzea hobetzeko. 16. Zailtasunen aurreko jarrera positibo eta eraikitzailea dauka.
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go Ebaluaketa

1. MULTZOA. Geometria laua sakondu

- Geometria artean eta naturan.
- Transformazio geometrikoa eta haien aplikazioa inguruneko elementuetan eta ekoizpen artistikoetan. 2h
- Ukitzailleak 8h
- Kurba konikoak 8h
- Arku kapaza 0,5h
- Poligonoak. 2h
- Eskalak. 0,5h

2. MULTZOA. Sistema Axonometrikoa (ISOmetrikoa) eta Diedrikoa.

- Oinarrizko trazadurak planoan. 3h
- Puntua, Zuzena, Planoa -ren irudikapena diedriko eta axonometrikoan. Lotura. 4h
- Ebaketa eta Elkarguneak. 8h

2. Ebaluaketa

3. MULTZOA. Adierazpen-sistemak

- Planoen arteko eta zuzenen eta planoen arteko ebakidurak. 4h
- Benetako magnitudea:
 - Eraispinak, biraketak eta plano-aldaketak. 4h
 - Distantzia bereziak. 4h
 - Adierazpenean. Angeluak. 3h
 - Paralelotasuna eta elkarzutasuna. 4h
 - Zuzenkien eta irudi lauen benetako magnitudeak lortzea. 4h
- Forma poliedrikoak eta biraketa formak aztertzea eta trazatzea.
 - Garapenak. 6h
- Arazo egoera: Bolumena lantzen: Cow Parade

3. Ebaluaketa

- Sistema axonometrikoa. 6h
 - Axonometria ortogonal eta zeiharra. 6h
 - Proiekzioak eta murrizketa-koefizienteak. 2h
- Sistema konikoa.
 - Sistemaren oinarriak eta elementuak.
 - Perspektiba zentrala eta zeiharra.

4. MULTZOA. Normalizazioa 3h

- Adierazpen-printzipioak: bisten kokapena eta izena.
- Bistak aukeratzea eta bista partikularrak.

5. MULTZOA. Bestelakoak 8h

- Itzalak.
- OBD Ordenagailu bidezko diseinua
- Ebaketak axonometrikoan.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Astean lau orduko ikasgaia izanik, bat txostenen lanketarako izango da. Besteetan azalpen teoriko eta zailtasun gradualeko ariketak garatzeko erabiliko dira. Ariketa hauek ikasleekin partekaturiko drive-an egongo dira, norbaitek hala behar izatekotan, berriz inprima ditzan.
- Klasean landutako kontzeptu teorikoen eta berauen aplikazioan ikasleen parte hartzea ezinbestekoa izango da, irakaslearen gidaritzapean. Ikasleek eskeiniriko ariketak osatu eta apunteak hartu beharko dituzte. Irasleak hala ikusten badu, edo ikasleek eskatzen badute, gai baten ariketa gehigarriak landuko dira, ikasleek gaia menperatu arte.
- Marrazketako tresnen erabilera egokiak garrantzi handia izango du, eta maketa edo bestelako material gehigarriak erabiliko dira gaiak hala eskatzen duenean.
- Klasean sorturiko zalantzak banaka zein taldean erantzungo dira, kasuan-kasuko beharren arabera.
- Ikasgaiaren edukien lorpena kalifikatu ahal izateko ebaluazio atalean aipaturiko tresnak erabiliko dira: Txostenak, Azterketak eta Jarrera.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN
[pruebasorales y escritas, cuestionarios, trabajosindividuales y engrupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contratodidáctico...].

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

Tresnak

- **%30 Txostenak.**

Asten behin (ostiralero) landuko diren ariketa multzoak dira. Klase hau galderak egiteko aprobeztatu, eta ikaslearen erantzukizuna izango da gainerakoa etxean lantzea.

Ariketak selektibitateko ereduak edo antzeko zailtasuneko ariketak izango dira.

Txostenaren entrega egunean atzeratzean, egun bakoitzagatik puntu bat gutxiago suposatuko du. Aste bat pasatu ondoren, ez da txostenik jasoko.

Marrazketa teknikoan txukuntasuna beharrezkoa da. -0.5eko puntuazio negatiboa izan dezake txukuntasuna betetzen ez duen ariketa orok.

Ariketek denbora atala daukate. Bertan ikasleak ariketa hori egiten zenbat minutu eman dituen idatziko du. Denbora ez da notarako kontuan izango, ikasleak behar izandako denboraren kontzientziaioa piztea du helburu. Horregatik, beti idatzi beharko da denbora estimazio bat.

- **%60 Azterketak.** Ariketen ebazpena eskatutakoari egokitzea, teknikoki ondo eginda egotea, txukuntasunarekiko arreta eta normalizazioaren arauak betetzea. Bi azterketa egongo dira ebaluazio oro, lehena %40 eta bigarrena %60ko pixuarekin. Batazbestekoa 4,5era iritzi ezean, ez da txostena baloratuko, eta ebaluazioa ez gaindituzat joko da.

- **%10 Jarrera.** Klasera garaiz eta beharrezko materialekin etortzea gutxienekotzat joko da. Ikasgelako hizkuntza euskara izango da, eta hala zuzendu beharko dira beti ikasleak irakasleari. Ikaskideekiko errespetua, klaseko jardueretan aktiboki parte hartzea eta etxerako lanak egin izana baloratuko dira.

- **Hutsegiteak.** Klaseen %20a faltatzean, ikasleak ohiko ebaluazioa izateko eskubidea galduko du; ondorioz ezohiko azterketara aurkeztu beharko da. Honen azpiko hutsegite ez justifikatuek eragina izango dute jarreran lorturiko kalifikazioan. Azterketen hutsegiteak ofizialki justifikatuak izan beharko dira, eta azterketa egin ezina, egunean bertan jakinaraziko zaio irakasleari.

- **Kurtsoaren nota,** hiru ebaluaketan batez besteko aritmetikoa da, baina borobiltzeko unean ikaslearen bilakaera kontuan izango da. Ebaluaketaren bat gainditzeke baldin badago, ikasturtea suspendituztat ematen da eta ikasleak ezohizko edo aparteko azterketa bat egin beharko du, non irakasgaiaren eduki guztiak sartuko diren.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

• **BERRESKURAPEN SISTEMA:**

• **Ebaluazioa** berreskuratzeko ikasleak azterketa bat egingo du. Errekupeazio gaitzeko azterketaren gutxieneko nota 5 izateaz gain, beharrezkoa izango da txostenak (klasean egindako lanak) entregatu eta gaitztea.

• Kurtso amaieran **irakasgaia** suspendituta egongo balitz (ebaluaketa bat edo gehiago gaitzeteke), ikasleak irakasgaiaren eduki guztiei buruzko ezohizko edo aparteko azterketa bat egin beharko du. Gaitzeteke bi aukera egongo dira:

- 1.deialdia Maiatzan **Ohikoa:** Irakasgaia gaitzeteke azterketaren gutxieneko nota 5 izateaz gain, beharrezkoa izango da txostenak (klasean egindako lanak) entregatu eta gaitztea.
- 2.deialdia Ekainean **Ezohikoa:** Selektibitateko lehen deialdia eta gero. Azterketaren notak %100eko pixua izango du eta gehienezko kalifikazioa 5 da.

• **Aurreko kurtso irakasgaia berreskuratzeko**, ikasleak irakasgaiaren eduki guztiei buruzko ezohizko edo aparteko azterketa bat egin beharko du, non irakasgaiaren eduki guztiak sartuko diren. Hiru aukera egongo dira:

- 1.deialdia Ohikoa: Urtarrilean, irakaslearekin zehazturiko datan.
- 2.deialdia Ohikoa: Maiatzan, ikastetxeak zehazturiko datan.
- 3.deialdia Ezohikoa: Ekainean, Selektibitateko lehen deialdia eta gero, ikastetxeak zehazturiko datan.

• **INDARTZE SISTEMA** (Ikasketa prozesuan era egokian jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat)

- Eskakizun-maila egokia eskatuko zaie.
- Lan egiteko orduan ikaskide edo talde egokiak egingo dira.
- Irakaslearen banakako arreta emango zaio ikasleari. Ulertu ez duen hura, berriz azalduko zaio, klasean, besteak beste ariketa bat egiten dauden bitartean.
- Beharrezkoa izaten bada, indartzeko jarduerak burutuko dira.

Ikastetxeko proiektuak 2018-2019

Agenda 21: Kontsumorren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetza (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK	%100	%0
ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA	-Paragrafoak ondo antolatuak. -Garbi eta txukun dago -Izenburu egokia -Orri bazterrak daude	-Paragraforik ez dago -Narratsa. -Izenbururik ez dago -Orri bazterrik ez dago.
ZUZENTASUNA	-Ortografia, lexikoa eta gramatika. -Kontraesanik eta errepikapenik ez dago -Ideia bakoitzeko paragrafo bat -Puntuazioa zuzena da	-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika -Kontraesanik eta errepikapenak daude -Paragrafo nahasiak -Puntuazioa desegokia da
HELBURU KOMUNIKATIBOA	-Lanak mezua argi eta ondo transmititzen du.	-Lanak ez du mezua ondo transmititzen.

UNITATE DIDAKTIKOA 2. ebaluaketa

Arloa: Marrazketa II

Gaia: Bolumena lantzen: Cow Parade

Maila: Batxilergoa 2.maila

Saioak: 8

Proposamenaren justifikazioa: Gaur egun gizartean, irudimena oso garrantzitsua da eta edozein jardunaldi prestatzeko originaltasuna da elementu nagusia.

Cow Parade esposizio internazional publikoa da, mundu osoan zehar erakutsia izan dena. Erakusketa honetan, hiri bakoitzeko artista lokalek behi itxurako beira-fibrazko eskulturak margotu behar dituzte, gero hauek hirian zehar, leku publikoetan, sakabanatzeko asmoz. Orokorrean eskulturak bertako kultura kutsuekin margotzen dira.

Marrazketa mintegian, gure proposamena hau izango da: gure ikasleek haiek eraiki dituzten paperezko eskulturak apainduko dituzte. Gero institutuan erakusketa bat egingo da edo gabonetako jaian desfile bat egingo dute.

Oinarrizko kompetentziak:

Zeharkako kompetentziak

Arazo-egoera

- **Testuingurua:** Artea gure eskura
- **Arazoa:** Cow Paradeak horrenbesteko arrakasta izan zuen mundu osoan zehar. Guk antzeko erronka planteatu dugu. "3D Parade" erakusketa egin nahi dugu, non ikasleek paperezko zerbait (objektu bat, animalia bat...) margotu eta eraikiko duten, gero esposizio bat egiteko.
- **Helburua:** Bolumena lantzeko momentua heldu da. Institutuko proiektuan parte hartzeko paperezko eskulturak egingo ditugu eta aparientzia ezberdinak diseinatuko dituzte. Horrela ikasleek ekintzak motibazio gehiagorekin hartuko dituztela uste dugu. Alde batetik 3D dimentsioetan lan egingo dute eta beste alde batetik diseinuan irudimena lantzeko aukera edukiko dute.

Eginkizuna

Batxilergoko ikasleek eguneroko objektuen deskonposaketan (garapen planoan) jardungo dira. Forma geometrikoak eginez.

1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
3. Elkarbizitza eta hiritartasunerako kompetentzia
4. Ekimen eta espirtu ekintzailerako kompetentzia
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburu didaktikoak:

- Gu gara eskultura-egileak. Guk antolatuko dugu behar duguna.
- Eskultura eta errealitatearen arteko erlazioaz jabetuko gara.
- Ikasleek arazoak gainditzeko estrategiak garatuko dituzte.
- Esku trebetasuna eta sormena landuko dugu, material eta tresna desberdinak erabiliz.
- Lana egin ondoren honek zer transmititzen duen eztabaidatuko dugu.

Edukiak:

- Garapen planoak ikusi eta interpretatu.
- Marrazkiak egin: apainketa.
- Ideiak ordenatu eta modu egokian adieraztea.
- Materiala pentsatu. Papera ez biguntzeko edo apurtzeko baliabideak garatu.
- Behin betikoa egin.
- Prozesua azaltzen duen memoria bat egin.
- Lantaldearen antolaketa eta denboraren kudeaketa.
- Materialen erabilera egoki eta errespetuzkoa.

Jarduereen sekuentzia:

Hasierako fasea:

Proiektuen ezaugarri orokorrak:

Prozesuaren antolaketa behar da:

- Garapen planoari buruzko ikerketa egin.
- Apaintzeko diseinua egin.
- Eraikitzeko pausuak antolatu.

Ikasleei beraien proiektuetan protagonismo gehiago eskatzen zaie, bai eraikitzerako, erabakitzerako zein baloratzerako orduan. .

La Cow Paradeari buruzko informazioa lortu eta sailkatu beharko dute. Ereduak ikusi eta herriko kulturaren inguruko ikonoak erabili beharko dituzte zirriborroak egiteko.

Garapenaren fasea:

- Eginbeharrekoak planifikatu eta planifikatutakoa bete.
- Apaintzeko zirriborroak hasi (bakarko lana). Taldean, amankonunean jarri eta behin betiko diseinua erabaki.
- Pentsatu zein material eta eskala diren egokienak.
- Marraztu eta koloreztatu.
- Piezak moztu, antolatu, itsatsi eta eraiki.

Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

- Besteekin partekatu.
- Kritikak: Jendeak jakingo du Cow Parade zer den.

Ebaluazioa.

A. Adierazleak

- Gai bati buruzko planteamendua:
- Teknikoki minimoak lortuta

B. Tresnak

- Irakaslearen ebaluazio taulak. Txantiloia

MARRAZKETA DEPARTAMENTUA

KURTZO AKADEMIKOA: 2017-2018

Emaizta akademikoen balorazioa.

TALDEA	IKASLE KOPURUA	Ohikoan		ez ohikoan		ez aurkeztu	Guztira gainditua %
		gai	ez gai	gai	ez gai		
1 DBH E	23	17	6	4	1	1	%91,30
1 DBH F	25	17	8	4	3	1	%91,30
1 DBH G	23	17	6	3	2	1	%86,95
1 DBH H	24	18	6	1	4	1	%79,16
1 DBH I	24	11	13	5	8	0	%66,66
guztira	119	84	39	17	18	4	%87,58
2 DBH E	22	20	2	1	0	1	%95,45
2 DBH F	21	19	2	0	2		%90,5
2 DBH G	20	18	2	0	2		%90
2 DBH H	20	15	5	4	0	1	%95,00
2 DBH I	20	16	4	0	2	2	%80
guztira	103	88	15	5	6	4	%90.19
3 DBH E	13	6	7	2	5	0	%61,53
3 DBH F/G	19	14	5	2	2	1	%84,21
3 DBH H/I	13	6	7	5	0	2	%84,61
guztira	45	24	19	9	7	3	%76.78
1 BATX	18	13	5	0	2	3	%72,22
2 BATX	11	10	1	1	0		%100